

Asisko gutuna

2012ko ekaina. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin,

anaitasunez bizi

44. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Hilero Asis Sareak frantziskotar espiritualitatearen lau printzipioren jirabiran gogoeta egitera gonbidatzen gaitu. Hil honetako gutuna horietako laugarrenaz doa: "Bide hau elkarrekin egin, senidetasunean bizi".

Senidetasunak Frantziskoren nortasuna markatzen du: berak giza duintasunean partekatu eta bilatu

zuen, senide izaten jardutean, lagun hurko sentitzean. Asis Sareak printzipio hau aplikaziorako bi irizpidez partekatzen gonbidatzen gaitu: (1) hileroko azken osteguneko otoitzaz; eta (2) hileroko gutuna, bilaketan dabilzan pertsoneri zuzendua, landuz eta zabalduz.

Gogoetarako gaia

Familia eta bere kontraesanak

"Senidetasuna" hitza, bizitzeko eredu ideal bat aipatu nahi dugunean erabiltzen dugu. "Senide arteko" esaten dugu, senideen artean suposatzen den maitasun desinteresatu eta baldintzarik gabekoaz ari garenean. Senidetasun unibertsalaz nahi genuke hitz egin, eta bertan elkarrekiko errespetatua eta justizia nagusi izatea, baina geure etxetik dakigu nolako lanak ditugun elkar errespetatzeko eta are elkar eramateko.

Garai nahasiak bizi ditugu, eta horrek eguneroko zailtasunetan du ispilua. Maiteak izan nahi ditugu anai-arrebak, baina irain, bekaizkeria eta ezinikusiek aldendu egiten gaituzte elkarrengandik. Elkarrentzat ona nahi genuke, bizitza osoan elkar maitatu, baina askotan saminegiak dira gure bat-ez-etortzeak eta zailtasunak. Seme-alabei, hartu ditugun baloreak helarazi nahiko genizkieke, eta ezin handiz ikusten dugu, dugun onena arrotz egiten zaiela, esperoek porrot egiten dutela, eta haien sufrimenduak akitu egiten gaitu.

Geure familiaren etorkizunari begira, itxaropena mantendu nahiko genuke, bederenik segurantza mailarik txikiena, lasaitasun pixka bat; baina gainean ditugun zailtasunek zalantza sakonez eta larritasunez betetzen gaituzte.

Elkarrentzat, gutxienez etxe koentzat, ona nahi dugu: elkarri onarpena eta konfiantza eman, elkarri emanak bizi eta geureekin poztu; baina askotan maitasunak ez digu mailarik ematen. Hau guztia sentitzen dugunean, argi gelditzen zaigu, iturria ez dagoela geuregan. Baina geure ezina baino haratago, joan gintezke ur biziaren iturrira, Jainkoak hitz emandako maitasun agortezinera.

Dena jasaten duen maitasuna behar dugu, dena sinesten duen maitasuna, konfiantzari eusteko; dena itxaro duen maitasuna, datorkiguna onartzeko, borrokan jarraitzeko eta bizitzak ematen diguna eskertzeko; dena jasaten duen maitasuna behar dugu, geure izate mugatua onartzeko, bat-ez-etortze mingotsak eta gaizkia eramateko.

Frantziskotar espiritualtasuna

"Eta konfiantzaz ager biezakzio batak besteari bere premiak; izan ere, amak bere haragizko haurra hazten badu eta maitatzen, zenbatez maitekiroago ez ote du maite eta hazi beharko bakoitzak bere anaia espirituala?" (2 Er 6,8). Anaia Frantziskok familia berri bat, senide-harreman sakonez eginga, eta amarena baino ere maitasun eta arreta handiagokoa, du desiraz hezurramitzen. Amets bat, edo gaintitzen gaituen utopia bat, dirudi. Hain justu, Frantzisko eta bere anaien anaidietan ere sortu ziren ezinikusiak, elkarren kontra ibiltzeak, sufrimenduak eta arbuioak.

Baina Frantziskok ez du hori utopia gisa ikusten, Jainkoaren amets gisa baizik; eta berori posible egiten da, bizi eta maitasunaren Espirituari gu arnasten eta gidatzen uzten diogun neurrian. Horregatik esaten du anaia espiritualak, Jesu Kristoren Espiritua bere baitan dutenak, alegia. Eta orduan gertatzen da, Jainkoaren Erregetza heldu dela gugana. Jainkoaren Espirituak pertsona bakoitzari eragiten diola sinesten duelako, sinesten du Frantziskok familia berrian.

Hori da Frantziskok anaiei egiten dien oinarritzko oharra: gauza guztien gainetik Jaunaren Espiritua edukitzea eta haren eraginez obratzea. Horrela bakarrik osatu ahalko dugu maitasun indartsuz loturiko senide-familia, anaia-arreba bakoitza onartzeko eta haren alde ahalegintzeko modukoa, bakoitzari barkamena eta konfiantza eskaintzeko modukoa, bakoitzari doan emanak bizitzeko eta harengatik eskerrak emateko modukoa.

Ebanjelioko pasartea: Mt 12,46-50

Oraindik Jesus jendeari hitz egiten ari zela, haren ama eta anai-arrebak azaldu ziren kanpoan, berarekin hitz egin nahian.

Batek esan zion:

– Aizu, ama eta anai-arrebak dituzu kanpoan, zurekin hitz egin nahian.

Jesusek, berriz, erantzun zion:

- Nor da nire ama eta zein nire anai-arrebak?

Eta, bere ikasleengana eskua luzatuz, esan zuen:

- Hauek ditut nik ama eta anai-arreba. Izan ere, zeruko nire Aitaren nahia egiten duena, horixe dut nik anaia, arreba eta ama.

Otoitza

Bai eder dela senideak elkarturik bizitzea!

Senideak elkarrekin bizitzeak presentzia sortzen du, freskura, bizi oparoa.

Senideak elkarrekin bizitzeak fruitu on oparo ematen du.

Senideak elkarrekin bizitzeak Jainkoaren bedeinkazioa erakartzen du.

Zein zoriontsua den, gurasoek eta seme-alabek eta senideek elkar maite duten etxea!

Lokarri ona da odola, baina hobea maitasunaren lokarria.

Maitezko lokarri horretan ikasten dute anai-arrebek jolasean, elkar ezagutzen,

maitatzen, elkar laguntzen, zuzentzen, zaintzen eta elkarrengatik interesatzen,

elkar leial defendatzen, bertuteak eta balore sozialak praktikatzeko.

Maitasuna atsegingarria da, lurrin usaintsua bezala.

Maitasuna argia da gizakientzat.

Maitasunak busti, ernaldu eta aldatu egiten ditu giza errealitateak.

Maitasuna sua da, eta intentzio txarrak garbitzen ditu.

Maitasunak egoismo eta bekaizkeriak desegiten ditu.

Maitasuna irekita egotea da, eta atera egiten gaitu geure mundu txikitik.

Maitasuna leiala da, ama bere seme-alaba txiki gaixoarekin bezala.

Maitasuna ederra eta paregabea da, udaberriko arrosa bezala.

Maitasuna leuntasuna da, gozoa, ontasuna, atsegin bizia; ez behazunaren garratza.

Jauna, laguniezadazu bizitzeko, maitasuna ematen eta senidetetasuna egiten.

Emadazu bihotz handia, maitatzeko, zerbitzatzeko eta nire senideei laguntzeko.

(Mariano San José Díez-ek moldatutako Salmos bíblicos actualizados)

Gutuneko azken hitzak

Ohartzen garenean bestea maite dezakegula, bere bertsiorik txarrean ere, bere mugetan eta mugekin, ohartzen gara maitatzen ikasten ari garela.

2012ko uztaileko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate uztaileko erreferentzia guztiak:

1 Mk 5,21-24.35-43	8 Mk 6,1-6	15 Mk 6,7-13	22 Mk 6,30-34	29 Jn 6,1-15
2 Mt 8,18-22	9 Mt 9,18-26	16 Mt 10,34-11,1	23 Jn 15,1-8	30 Mt 13,31-35
3 Jn 20,24-29	10 Mt 9,32-38	17 Mt 11,20-24	24 Mt 12,46-50	31 Mt 13,36-43
4 Mt 8,28-34	11 Mt 19,27-29	18 Mt 11,25-27	25 Mt 20,20-28	
5 Mt 9,1-8	12 Mt 10,7-15	19 Mt 11,28-30	26 Mt 13,16-17	
6 Mt 9,9-13	13 Mt 10,16-23	20 Mt 12,1-8	27 Mt 13,18-23	
7 Mt 9,14-17	14 Mt 10,24-33	21 Mt 12,14-21	28 Mt 13,24-30	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2012ko ekaina. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin.

anaitasunez bizi

44. zenbakia

Bizitzako bidea ez dugu bakarrik egiten, beste askorekin baizik. Batzuk gertuago ditugu, besteak urrutiago, baina beroriekin senidetasun unibertsalean bizi nahi dugu. Otoitz eta gogoeta egingo dugu familiaz eta mundu indibidualista honetan dituen kontraesanez.

Familia eta bere kontraesanak

Has dezagun hil honetako gutunaren lana galdera honekin: zer da niretzat familia eta zertan bereizten dut senide taldetik? Edo gauza bera dira? Nortzuk jotzen ditut familiakotzat? Nortzuk senide-taldekotzat? Edo ez dut bien artean bereizten?

Bigarren momentuan, pentsa ezazu nortzuk dituzun ez bakarrik nekez maitatzen, baizik eta nekez errespetatzen eta askotan nekez jasaten. Zure ustez, zer egin dezakezu kasu horietan?

Pentsatu duzu inoiz, otoitzak lagun diezazukeela haiei bestelako begiz so egiten? Ahalegin zaitetz gutun honen bidez lan hori aldi honetan egiten, eta ikusiko duzu nola doan zure senidearekiko begirada aldatuz.

Behin baino gehiagotan, bat ez etortzeak oker-ulertze txikietatik datoz, geure nahia inposatu guretik, aditzen ez jakitetik, eta abar. Zeuretzat, zeintzuk dira bestea senide gisa maitatzeko zailtasunak?

Gertukoena dituzun pertsonak direla-eta, nola erreakzionatzen duzu bakoitza den bezala, hura aldatu nahi gabe eta zeure iritziak beti inposatu gabe, maitatzeko zailtasunen aurrean.

Maitasuna eta zuzenbidea munduan bizi ahal izateko, geure etxetik hasi behar dugu, gero denengana zabalduz joateko. Helburu txikiak jarriko dizkiogu geure buruari beti geure errealitatetik abiatuta, senide-harremanak hobetzen joateko urratsak emanez.

Nor da nire ama eta zein nire anai-arrebak?

Hasi testuaren bidez otoitz egiten. Zer sorrarazten dizu barrutik? Guretzat gogorrak dira Jesusen hitzak. Zer esan nahi ote digu berak?

Jesus odol-harremanetatik harat doa. Berarekin senide-harremanak, odoletik, gizartetik, ideologiatik nahiz arrazatik sortutako familia baino haratago doaz.

Senidetasun berriaz mintzo zaigu, Jainkoaren nahia betetzen dutenek osaturiko familiaz. Bazoaz senidetasun berri horren aurkikuntza eginez?

Kristorengan anai-arreba eta Aita beraren seme-alaba izate hori Jesusengandik bakarrik sumatu ahalko dugu, horrela senide-talde berri horretakoa izatera etortzeko, bihotzeko lokarrik elkartuak sentitzeko eta besteei konfiantzan emanak bizitzeko, zuzenbidea eta maitasuna nagusituko diren mundu baten esperoan.

“Anaia espiritualak”

San Frantziskok anaia espiritualak aurkitu zituen. Zu ere bazoaz horrelakoak aurkituz? Nortzuk dira zuretzat Espiritu berarekin bizi diren anai-arreba horiek?

Frantzisko, batak besteari konfiantzaz premiak agertzeaz mintzo da. Zeintzuk dira nire zailtasunak ditudan premiak agertzeko? Zein motatako premiak ditut nekez agertzen?

Frantziskok badaki zein den Jesusen aipatzen duen senidetasun berria, eta elkarrekin bizitzeak berekin dituen zailtasunak gorabehera, Espirituaren gidaritzan onartzen du.

Joka dezagun guk ere era horretan, eske eta otoitz eginez Jesus Berpiztuaren Espirituari, etorri datorren Jainkoaren erregetzaren aurkikuntza egiten gida gaitzan.

Jesusen Espirituak irekiko digu bihotza eta besteekiko begirada aldatuko, haiekin anai-arreba gisa bizitzeko, Jainkoari eskerrak emanez haiek gure bizitzako bidean jarriz egin digun mesedeagatik.

“Emadazu bihotz handia, maitatzeko”

Testuaren bidez eska dezagun bihotz handi eta emankorra ototzean, anai-arrebak maitatzeko, zerbitzatzeko eta zaintzeko.